

Aurkezpena: *Euskalingua* – 2

Irakurle,

Euskalinguaren bigarren zenbakia duzu begi aurrean. Aurrekoan bezala, artikulu bilduma mardula duzu honako hau, hiru arlotan bananduta. Batetik, hiru artikulu teoriko topatuko dituzu, gramatika, fonologia eta fonetikaren ingurukoak, hain zuzen.

Coterónnek, filosofia eta hizkuntzalaritza chomskyarra kontuan izanda, euskal egitura pasiboen gainean jardun du eta euskal subjektu eta objektuaren definizioak kolokan ipini ditu, *Apuntes de filosofía del euskara, I: contra el sujeto* artikuluan. Gamindek Mungialdean herskarien eta afrikarien artean gertatzen diren txandaketak aztertu ditu; herri batzutan txandaketak ez dira guztiz burutu, gertatzen ari dira eta burutu diren ala ez eta aldaketon garrantzia kontuan hartuta, Mungialdeko herrien sailkapena egin du. *Fruizko hizkera: bokalismoa* artikuluan, lau berri-emaile gizonetzkoen laguntzaz, Uriartek Fruizen ebakitzen diren bokalen azterketa akustikoa ematen digu, formakinak aztertuta.

Bestetik, lau korpus lan topatuko dituzu *Euskalinguaren* bigarren zenbakian. Hiztegi zabalaren argitalpenari hasiera emateko, Nabarnizko lexikoaren A sarrerak dakartzkigu Mtz. de la Cuadrak. Hizkuntzalari honek Nabarnizko hiztegia batu ez ezik dakartzan adibideak hiztunengandik jaso ditu, benetako erabilera, eta ez ohikoa den legez hizkuntzalariek asmatuta, jaso ere. Gainera, hiztegia beste lan batean ere jorratzen da, Intxaurrearen Galdakaoko baserri inguruko hiztegiaren gaineko artikuluan, hain zuzen.

Mendebaldeko etnotestoez ere badute beren lekua bigarren zenbaki honetan: Elgoibar eta Gaminderen eskutik, Lekeition 1992 eta 2002 bitartean jasotako hemeretzi narrazio, jatorrizko ahozko testua transkribatuta eta batuan, irakur genezake. Eranskinen,

Lekeitioko aldaeraren adizki alokutiboen taulak dakartzate. Era berean, Barrutiak jaso eta transkribatuta, Orozkoko ipuin mitologiko batzuk irakurtzeko aukera dugu.

Amaitzeko, aplikazioetarako lanak ere argitaratu gura izan ditugu *Euskalinguaren* bigarren zenbakian. Ikuspegi soziolinguistikoko batetik, eta munduko hizkuntzen egoera deskribatzea eta arriskuan dauden hizkuntzei buruzko gomendioak ematea helburu izanda, Barreña eta bestek UNESCO erakundearentzat autoreek euren idatziriko *Munduko hizkuntzei buruzko txostenaren* berri eman dute. Txostena egiteko galdetegien bitartez batutako datu base zabalaz eta adituek egindako ekarpenez baliatu dira.

Hizkuntza eta kulturaren didaktikaren ikuspegitik, *Xabiartxo* eskola-liburu aitzindariaren lan mundua eta teknologiaren mundua ikasleen testuinguru soziokulturaletik abiatuta zelan irakasten diren aztertu du Perez de Urrazak *Lana eta garapen teknologikoa Xabiartxo eskola-liburuan* izenburupeko artikuluan.

Azkenik, Zalbide eta bestek *Euskararako SAMPA kodeaz* izenburupeko artikuluan ordenadoreak irakur eta uler dezakeen SAMPA izeneko alfabeto fonetikoaren erakusten digute eta gaur Aholab ikerketa taldeak ahots artifiziala sortzeko sistemak garatzeko erabiltzen duen SAMPA kodearen euskararen berrogeita bat fonema eta alofono zerrendatzen dizkigute.

Artikulu hauek denak gustura irakurriko dituzula espero dugu eta, bide batez, hurrengo zenbakietarako zure ekarpenak Mendebalde Kultura Alkartera bidaltzeko gonbitea luzatu gura dizugu.

Esti Amorrortu editorea